

EGUNAK EGIN DU

Kaleak jantzi ditut *Phono Sapiens* bihurtuz
eta gosaritan albisteez fagozitate naute
izan nintekeenaren karikatura bat aurpegiatuz
nire Veneziarik gabeko maskara-jokoan
zaugarritasunez deseraiki dezadan nire supernia
heroi erori bat lez.

Lanera joateak, beharra abiaraztean datza
daukadan energia gutxi hori xahutzeko beharra
irabaziak, nire baitatik iragaziak
gorputz birrindu baten osotasunetik
Prometeo izan nahi eta Frankenstein performatuz
hegia poliedriko aldapatsuen demokrazian
aldamioa bilakaturik aspaldidanik
ni bezalakoen behe-klasekoen talaia.

“Nire bertsiorik onena” azpigitulatzeko diot nire buruari
eta dagokidan merkezureko soldataren hezurduran
haginka egiten dit, hezurretan utzi arte.

Interes tipoak nire nagusiak direla irakatsi didate
eta bizitza mailegatzeko arriskuan
iraungitzearen denbora besterik ez naizela haien zat.

Esplotazioa, autozentsura kultural bat da
enplegatzerik ez diren lanak
landu ditzan lehertu arte proletargoak, amesgaiztoz.
Esplotazioa da esklabu berrion kotoiaren froga

noiz pasako nagusi jaunak gure azalean
inframundu beltzaren gainazalean.

“Buzoak eta trajeak berdinak dira”, uniformizatuan
eta gorbatak ere paparra estutzen die, lehengo lepotik
besteen bizkar bizirauten dutenen business-claslean
hegaldia dute egunero zeru honen behe aldera.

Matrix bat bizitzeari ekin diogu
esperientzien matrize esperimentalean
non jada infinitua erortzen ikusi dugun
internet konexiorik gabeko une bakanetan.

Soldata batetik zintzilik
ametsak amildegi ertzean eskegita
Aliziaren lurralde miragarriko untxian
ez sinistea da trukorik onena
eta pilula urdin eta gorriaren artean
errealitate gordinak bere medizina igortzen die ametsei
sendagaitik horren gutxi duenak.

Nire lankideen aurka jokatzan dut derbya
autoesplotazioaren kirol nazionala
auto-tunean isildutako langileon garrasia
oihartzunik ez dakarren joanaren uretan.

Zero absolutua naiz, gizarte absolutista honetan
eta haren berotasun hezean izoztu naizenez

politikarien hainbat politika ezak
tabernetako tertulien agora apartsura narama
burbuila batean bizitzera garamatzan
nahiak eta ezinak, bertan hezi nahiak.

Aisiarik ez izateko astia hartuta
gizarte narzisita honen Dorian Gray izateko
gimnasioaren kontrakantxa ab(u)surduan
pisuak altxatuz zamak kentzeko
izango ez naizenak zamalkatzen nau
gizarte likidoaren izerdi tantetan
tantaz tanta eta bihotzak taupa taupa
zeren ispilu izan nahi duen ez dakien
eta hustasuna jada gabezia ez dela oharturik
bizirauten du gizarteak
bere ahalmenen gainetik,
Eros ahalmenaren gainetik, agian.

Gorputz tonifikatua idortasunaren iturri
eta Gin Tonic-fi(n)katuaren gardentasunez
nire burua garaitu izanaren ilusioz
hurrengo rounderako prestatzen naiz izkinan
edo agian, ertz mingarrietan
gizarteak ardaztutako periferiatan
ezinen gainetik, ezinegonak ahortzi ziren
ukazio askoren baikortasunean
bizirik gabeko nitasun baten pluraltasunean
gu izateari utzita.

Barraren ondoan, VAR eternoari begira

erabakiak besteren batek hartu ditzan

Anaia Handiaren menpe, bizitza desenfokatueta

gardentasuna, kristalaren beste aldean dagoelarik

telefonotik lan aginduak txiokatzen dituzten saiek

haragi freskoaren bila dihardute, gauaren ordu txikietan

egunaren zirkulua itxiz, espiralean

ispiluaren aurrean difuminatu gaitezen.

Ez, ez du oraindik egunak egin.

Egunak, (des)egin nau.

“PHONO”